

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

4. Finalurrekoa – HENDAIA Aurkezlea: Zuriñe Iarritu
--

8KO NAGUSIA

Jone Uria eta Julio Soto

Zuek lan egiten duzuen enpresan langileek erdiak bota dituzte azkenaldian. Gaur egunkarian irakurri duzue zuen enpresak lantoki berria irekiko duela Txinan.

Jone hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Aitor Sarriegi eta Amets Arzallus

Zuen bizilagunen haurraren negarrak esnatu zaituzte gauean; leihora atera, eta bakarrik ikusi duzue etxeko balkoian.

Aitor hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Onintza Enbeita eta Jon Maia

Supermerkatuan erosketa eginda atera zarete oraintxe; baserritarren manifestazio bat dago atarian, traktore eta behi eta guzti.

Onintza hasita, hiruna bertso zortziko handian.

8KO TXIKIA

Julio Soto eta Aitor Sarriegi

Aitorren etxean zaudete biok, ohe-jolasean. Zuri, Julio, Aitorrek esan dizu zazpi eta erdietan etorriko direla bere gurasoak. Bostak dira, eta giltza-hotsa sumatu duzue atean.

Julio hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Jon Maia eta Jone Uria

Zuri Jon, Behobia-Donostian marka ona egiten laguntzeko pastilla batzuk eskatu zizkizun Jonek. Inoiz baino denbora txarragoa egin zuen, eta kontu eske etorri zaizu gaur.

Jon hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Amets Arzallus eta Onintza Enbeita

Amets, zure eskolako notak direla eta, askotan aritzen zarete eztabaidan etxean.
Gaur, Onintza amaren/aitaren umetako notak aurkitu dituzu paper zaharren artean.

Amets hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Jone Uria

Hondartzan nudistarik / ikusi al duzu?
Eguraldi honekin / ezin da biluztu
Larru gorritan inoiz / ipini ezker

Julio Soto

Gure geografiaz / ba ote dakigu
Ezpeleta aditu / ta non den jakin ez
Zure herria mapan / ageri ote da

Aitor Sarriegi

Diruak irauten du / patrikan hain gutxi
Kalera aterata / gastua ugari
Gastatu ta gastatu / hori da legea

Amets Arzallus

Disko-salmenta ere / beheraka, beheraka
Eta musikariek / kontzertu asko nahi
Asko joaten al zara / kontzertuetara?

Onintza Enbeita

Alemanian bada / orain zer ospatu
Baina horma gehiago / badago munduan
Hormarik handienak / buruan ditugu

Jon Maia

Zenbaiten txapelketa / gaur bukatuko da
Zu agertzen al zara / pronostikoetan
Hainbeste jende ez da / biltzen plazaz plaza

SEI PUNTUKO MOTZA

Julio Soto eta Onintza Enbeita

Arrantzan ari zarete itsaso zabalean. Bost itsas miliara arrain-banku handia bat dago, baina enbata dator. Zuk Julio , aurrera egin nahi duzu hala ere. Onintzak ez.

Julio hasita, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Jone eta Amets Arzallus

Anaiak/ahizpak/neba-arrebak zarete, eta zuen ama alarguna ikusi duzue gaur zuen adin bertso bati besotik helduta. Zu Jone izugarri poztu zara; Amets ez.

Jone hasita, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Aitor Sarriegi eta Jon Maia

Igeltseroa edo hargina zara, Aitor. Urtea bukatzerako amaitua egon behar du egiten ari zaren lanak. Denborarik ez dagoela eta, jai eta aste lan egiteko eskatu dizu Jon nagusiak.

Aitor hasita, hiruna bertso sei puntuko motzean.

KARTZELA

Etxeko balkoian "salgai" txartela zintzilikatzen ari zara.

Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.